

Kazetaritzari buruzko lehen doktore-tesia, euskaratua

Javier Díaz Noci
EHUko irakaslea

Aldizkaritzat har ditzakegun lehen argitalpenak XVI. eta XVII. mendeen arteko uztartzean sortu ziren Alemanian. Etorkizunean Kazetaritza gisa ezagutuko zen fenomeno berriari buruzko buru-lanean ere Alemaniako lurraldeak aitzindariak izan ziren. Gai honi buruzko lehen doktore-tesia Tobias Peucer-ek irakurri zuen 1690ean Leipzig-eko Unibertsitatean. Tesi hura, zeinaren jatorrizko testua latinez idatzia den, katalanera itzuli zen 1990ean eta gaztelaniara 1996an. Oraingoan Penintsulako beste hizkuntza batera itzuli dugu, euskarara alegia. Komunikazio-fenomeno berriari buruz Erdialdeko Europan burutu zen gogoetaren barruko ingurunea ere islatzen saiatu gara testu honen sarreran.

The first publications than can be considered as periodicals were placed in Germany in the last 16th century and the first 17th century. Germany was also pioneer in the academic reflection about that new phenomenon that would later be called Journalism. The first doctoral thesis we know about that subject was presented in 1690 in the University of Leipzig in 1690. That thesis, originally written in Latin, was translated into Catalan in 1990 and into Spanish in 1996. Now we present this translation into another one of the languages of the Peninsula, into Basque, with a short historical introduction that places this first doctoral thesis about Journalism in the context of the intellectual skill about the new communication phenomenon done in Middle Europe in the last 17th century.

Sarrera

XVII. mendean, Alemanian, aldizkariak edo kazetak eguneroko gauza ziren. Lehenengo egunkaria (*Einkommende Zeitungen*) Leipzig-en sortu zen 1650ean. Unibertsitatea ere garatuta zegoen hango lurraldeetan. Kazetaritzari buruzko akademi testuak orduantxe sortu ziren, mende haren bukaeran. Baita horri buruzko lehen tesia ere: Tobias Peucer-en *De relationibus novellis*, 1690ean Leipzig-eko Unibertsitatean defenditua eta guk oraingoan *Errelazioei buruz* izenburuaren pean euskaraz aurkezten duguna, Penintsulako hizkuntza batean egiten den hirugarren itzulpena, alegia.

Eusko Ikaskuntzak berak inspiraziotzat hartu zuen Institut d'Estudis Catalans-eko Societat Catalana de Comunicació delakoaren *Periodística* aldizkarian Josep Maria Casasús katedradunak 1990ean argitaratu zuen Espainiako hizkuntza batera egindako lehen itzulpena, tesi haren hirugarren mendeurrena betetzen zenean hain justu ere. Sei urte geroago, 1996an, Madrilgo Complutense Unibertsitatearen *Estudios sobre el Mensaje Periodístico* aldizkariaren ale monografiko batean, faxsimilean latinezko bertsio jatorrizkoarekin batera gaztelaniazko itzulpena argitaratu zen. Bi kasuetan, ikerketa batzuekin batera eman zen ezagutzera kazetaritza akademikorako hain funtsezkoa den emaitza hau. Gaur, euskarazko bertsioa aurkeztera gatozkizue.

Tesiaren testu latina, eta haren aurkezpen publikoaren ondoren egin ziren latinezko edo alemanezko laudorioak, lehen aldiz argitaratu ziren Leipzig-en bertan. Testua ezaguna da gaur, baina, 1944an Karl Kurth-ek argitara emandako kazetaritzari buruzko antzinako testu alemanen bildumagatik (batzuk bertako hizkuntzan, beste batzuk latinez): *Die ältesten Schriften für und wider die Zeitung: die Urteile des Christophorus Besoldus (1629), Ahasver Fritsch (1676), Christian Weise (1676) und Tobias Peucer (1690) über den Gebrauch und Missbrauch der Nachrichten*, Brünn etc.: Rudolph M. Rohrer¹. Izenburuak berak dioenez, Peucer-en tesiaz aparte, Christoph Besoldus, Ahasver Fritsch eta Christian Weise XVII. mendeko idazle alemaniarren testuak dakartza liburuak. Besoldus eta Weise ezagutzen zituen Peucer-ek, biak aipatzen dituelako bere tesian. Horiei guztiei buruz, eta gainerako 'teoriko' aleman zaharrei buruz, aritu zen Ingrid Schulze Schneider irakaslea Tobias Peucer-en tesiaren gaztelaniazko itzulpenarekin batera agertu ziren artikuluetako batean². Aipaturiko izenei Johann Ludwig Hartmann, Daniel Hartnack, Caspar von Stieler *Der Spaten* eta Christian Junker-enak gehi dakizkieke. Azken horrek bilduma hemerografiko bat argitaratu zuen 1692an, Tobias Peucer gureak bere tesia aurkeztu eta bi urte geroago, non Europako aldizkari askoren berri ematen zuen.

Tobias Peucer-en biografi datu gehienak bere tesia irakurriz jakin daitezke: Medikuntza ikasten zuen —ziur aski baita Filosofia eta Teologia ere—, Görlitz-en jaioa zen, eta hango Gymnasium-ean Christoph Funccius-en ikaslea izan zen.

1. Oxford-eko Unibertsitateko Taylorian Liburutegiko alea kontsultatu genuen 1998-1999 ikasturteko *Basque Visiting Fellow* izan ginenean, Eusko Ikaskuntzak emandako beka bati esker.

2. Schulze Schneider, Ingrid. "Sobre el placer y el peligro de la lectura de prensa: Comentarios y opiniones de los primeros teóricos alemanes". *Estudios del Mensaje Periodístico*, 3. zenbakia. Madril: Servicio de Publicaciones Universidad Complutense, 1996, 91.-102. orrialdeak.

Leipzig-eko Unibertsitatean egin zituen goi-mailako ikasketak, bere tesiaren zuzendaria Adam Rechenberg errektorea bera izanik. Bestela, ezer gutxi.

Ez gara hemen ariko tesiaren egiturari buruz, edo testuaren analisisirik egingo. Horretaz jakin nahi duenak jo dezake aipatutako bi itzulpenekin batera argitaraturiko sarreretara eta artikulu gehigarrietara. Josep Maria Casasús irakasleari zor dio Espainiako akademi komunitateak hain lan garrantzitsua berreskuratzea, *Periodística* aldizkariaren 3. zenbakian egindako sarrera-ikerketan: “Estudi introductorio a la primera tesi doctoral sobre periodisme”, 9.-28. orrialdeak. Gure emaitza, beraz, itzulpen txukun eta garbia eskaintzea baino ez da. Ez dakigu jakitez egindakoa den; asmoz bai, behintzat.

Itzulpena irakurtzen hasi baino lehen, egin ditzagun zenbait iruzkin labur itzulpenaz eta testua itzultzean harturiko erabaki batzuen arrazoiaz. Lehenik eta behin, esan behar dugu gure itzulpena Joan Bellés eta Angel Sierra de Cózar irakasleen katalanezko zein gaztelaniatzko itzulpen ezin hobeen gainean egin dugula. Hainbat termino eta esaldi argitzeko latinezko bertsio jatorrizkora ere jo dugu lantzean behin, eta gure azken idazkia haien itzulpenen baina, batez ere, 1690ean Tobias Peucer sendagileak irakurritako testuaren argitan erreparasatu dugu (aipatutako Madrilgo aldizkarian Leipzig-en XVIII. mendean agerturiko edizioaren faksimila begi aurrean). Ez dugu itzulpenen itzulpen hutsa eta bizitza eskasekoa egin nahi izan, jatorrizkoarekiko ahalik eta fidelena baino.

Une orotan saiatu naiz tesia idatzi zeneko tonu eta estiloa mantentzen, kontuan harturik, zer esanik ez, zenbat denbora pasatu den 1690. urtetik hona eta zer ezberdin diren latina eta euskara (latinarene alde batetik eta bestetik katalanaren edo gaztelaniaren artean dagoena baino alde handiagoa, esan beharrik ez). Hala ere, badago euskaraz ere garai bereko eredu jasorik, latinez ikasitakoetan jakina, eta hain zuzen ere kutsu klasiko hori gogoratzen saiatu gara, *pastiche* barregarrian erori gabe. Jatorrizko testuaren sintaxiak berak ere lagundu digu eta, gaur egunetik begiratuta arkaiko samarra, baina ez bortxatua, irudi badezake ere, XVII. mende bukaerako Europa osoan —baita euskaldunon artekoari Euskal Herria deitzen zioten, eta diogun, honetan ere— bazegoen halako estilo komun bat, latinezko erretorika klasikoak ederki tindatua, bai idazle erromatar antzinarikoen eskutik, bai garaikide ere izan zitezkeen elizgizonen eskutik ere. Halako asko aipatzen ditu, hain zuzen, gure Peucer mediku kazetazaleak.

Zailtasun handiena, ordea, hainbat hitzen ordaina aukeratzeko orduan gertatu zaigu. Hain zuzen ere, hitz horietan izan dira aipatutako itzulpenetan buruhauste gehien sortu dutenak, eta tesiaren gaia zehaztu dutenak: *novellæ* eta *relationes novellæ*, hain zuzen. Bazegoen aukera bat, oro har Bellès-ek eta Sierra de Cózar-ek erabaki dutena: hitzok ez itzultzea. Guk, ordea, nahiago izan dugu hain funtsezko diren kontzeptuok (izenburuan bertan agertzen baitira) euskaratzea, hitz asmatuak eta erabilera eskaseko terminorik nonbait bilatu gabe, bestalde. Nahiko argi dago, alde batetik, Tobias Peucer-ek alemanezko *neue zeitungen* kontzeptuaren ordaina bilatu duela, edo asmatu beharbada, latinezko hauetan. Batzuetan badirudi banakako informazioez ari dela, hau da, *albisteez*. Beste batzuetan, ordea, *aldizkarietaz*. *Albiste* hitz horrek badauka tradizio dudaezina gure euskarazko testu klasikoetan. Gaur egun ere, guk geuk Kazetaritza Idazkuntza Unibertsitate-

eskoletan adierazterakoan, zehazten dugu albiste dela berrietatik (kazetaritza-informazioan interesgarri izan daitezkeen gertakizunetatik, alegia) testu batean gauzatzen dena. Tradizio handiko, erabilera zabalduko eta gaur egungo euskaldun guztiak ulermen ezin errazagoko hitza izanik, *novellæ* hitza agertu zaigun gehienetan euskarazko ordaintzat eman dugu.

Beste batzuetan onargarri izan daiteke *errelazio* hitza, bai produktu indibiduala (albistea), bai albistea dakarren papera adierazteko. *Errelazioei buruz* utzi dugu tesiaren izenburu euskaratua, zuzen, zehatz eta ekonomikoa delakoan (katalanez *Sobre els relats periodístics* gelditu zen, eta gaztelaniaz *Sobre las relaciones novellæ*). Josep Maria Casasús irakasleak dioenez, katalanezko itzulpena aurkeztekotan, eta espezialista batzuekin aritu ondoren, zeuden bi posibilitateen artean (*Sobre los nuevos periódicos* edo *Sobre los relatos periodísticos*), bigarrena aukeratu zen, «por ser aquella que defendían principalmente los latinistas, aunque sin demasiada convicción»³.

Batzuetan, interpreta dezakegu *relationibus novellæ* hitza aipatzen duenean Tobias Peucer-ek *kazetaritza-kontaera* edo *kazetaritza-idazkuntza* duela buruan. Edo, hitz hau ere asmatu bezain anakronikoa bada ere (baina ez erabat desegokia), *albistegintza*. Beste batzuetan, ordea, badirudi Peucer-ek erabiltzen duela *relationis novellæ* orduko aldizkari edo periodikoak —bi hitzok anakronikoak dira, baina—, esanahi horren *neue zeitungen* direlakoak latinez emateko. Erdaraz, garai hartan, italiar jatorrizko *avvisi* (banakako informazioak aditzera ematen zirenean) edo *gazeta* (gaur *kazeta* forma inposatu bada ere) hitzak (ez derrigorrean aldizkakoak, baina behintzat informazio batzuk jasotzen zituen argitalpena) zeuden nahiko zabaldua. Baita *relación*, *relation* bezalako hitzak ere (gaztelaniaz *relación de noticias* edo *de nuevas* ere ez da batere arraroa), berri garrantzitsu bakar bati buruzko argitalpen informaziokoa definitzeko. Zentzu horretan erabili zen *errelazio* hitza (ez *erlazio* forma) euskaraz ezagutzen dugun lehenengoa (1766koa): Baionako *Jaun Dauphin cenaren eritassouneco circunstancia berecien errelacionea*. *Errelazio* hitza, forma eta esanahi honekin behintzat, orain arte *hapaxlegomenon* bat izan arren, egokitzen dugu. Horregatik, horrelako argitalpenak *harremanetatik* ezberdintzeko ere, *erlazio* ez baino *errelazio* erabili dugu itzulpen honetan lexiko-eremu zehatzagoa bilatuz. Kasu bakar batean, azken puntuan alegia, erabili dugu *kazeta* hitza esanahi zehatzena ematen duen terminoa delakoan. Ez, aldiz, minik gabe: garaiko forma italierazko jatorritik —eta inguruko erdara frantses edo espainolezkoetatik ere— gertu-gertutik jarraitzen zuen *gazeta* forma bakarra baitzen euskaldunen artean ere.

Sarrera honek labur-laburra nahi zuen izan, ahalik eta laburrena, testua bera nahikoa baita bertan esan nahi dena adierazteko. Ezin argiago hitz egiten baitu Tobias Peucer sendagileak kazetaritzari buruzko lehen doktore-tesi honetan. Ederki gauzatu ditu autoreak idazkuntzaren inguruko aholkuak papereratzean. Itzulpen hau izango ahal da jatorrizko testuaren dizipulu ondratua!

3. Casasús i Guri, Josep Maria. "La versión catalana de Peucer, edición príncipe española". *Estudios del Mensaje Periodístico*, 3. zenbakia. Madrid: Servicio de Publicaciones Universidad Complutense, 1996, 61. orrialdea.

Jainkoa lagun!

ERRELAZIOEI BURUZ

L. ADAM RECHENBERG, Leipzig-eko Unibertsitateko Katedradun eta gaur egungo Erretore Txit Gorenaren

ZUZENDARITZAPEAN

Lautsitz-en dagoen Görlitz-eko

TOBIAS PEUCER

1690eko martxoaren 8an

jendeaurrean arituko da.

BEDEINKATUA IZAN BEDI JESUKRISTO GURE JAUNA

ERRELAZIOEI BURUZ

Adierazpenaren indizea

§ 1. Gaiaren erakargarritasuna. (2) *Novellae* hitzaren esanahia eta erabilera. (3) Histori kontatera ezberdinak eta zein da errelazioena. (4) Errelazioen deskribapena. (5) Haien jatorri eta zioak. (6) Histori kontaearen jatorria herri batzuetan, germanikoetan batik bat. (7) Errelazioen lehen sortzaileak eta zergatik idatzi zituzten. (8) Bi izan ziren arrazoiak: gizasemeen jakin-mina eta dirua irabazteko gogoia. (9) Albiste edo errelazioen kausa eragilea. (10) Lehen eskakizuna (adimenari dagokiona) ezaguera da. (11) Bigarrena, sena da (12) kontalariei normalean falta zaiena. (13) Borondateari dagokionez, sinesgarritasuna eta egiarekiko maitasuna behar dira, (14) batzuetan albistarietan faltan dagoena. (15) Albisteen edukiak: denetariko gertakizun bereziak. (16) Lehen prekauxioa, gaia aukeratzean. (17) Bigarrena. (18) Hirugarrena. (19) Gizasemeen jakin-minak nolabait arinkeria barkatzen du. (20) Zertan datzan albisteen forma. (21) Lehen alderdia *οικονομια* edo disposizioa da. (22) Bigarrena, *lexis* edo estiloa, zehatzago definitzen dena. (23) Albisteen helburuei buruz ari da, (24) zer den berriak jakinaraztea (25) erabilgarritasunarekin eta atsegingarritasunarekin batera (26) erabilgarritasun mota ezberdinak azaltzen dira. (27) Olgetari buruz ari da, (28) eta mugatzen da. (29) Albiste eta kazeta mota batzuk bereizten dira, era berean tesiari amaiera emanez.

- I. Kontuan harturik gizasemearen arima historiak baino gehiago pozten duenik ez dagoela, edozein modutan idatzia bada ere, agian ez diot irakurleari irainik egingo gaur egungo *novellae* edo albisteei buruzko iruzkin bat osatzen badut, gaur egun horietako berrikeriari asko baitago.
- II. Hitzari berari dagokionez, guztiok dakigu *novellæ* eta *relationibus novis* hitzek esanahi bera dutela, baina antzinako latindar idazleen artean ezberdina zen. Adibidez, Charles du Fresne-k, bere *Glossarium ad scriptores mediae et infimae latinitatis* liburuan, zera dio: Kontzilietako eskuizkribuetan *novellae* hitzak 'komunikazio berria' esan nahi duela, eta Errege Bibliotekan dagoen kode bateko adibide bat aipatzen du: *Eodem tempore, cum multis novellis gaudent quod Constantinus baptizatus a Silvestro Episcopo urbis Romæ, emundatus fuisset a lepra etc.* ('Denbora berean, asko pozten zirenez Konstatinori

buruzko komunikazio berriak jakitean, Erroman Silvestre apezpikuak bataiatu izan zuelakoan...'). Baina denboraren poderioz fraideek *albiste* edo *berritzat* hartu dute hitza. Hau asma daiteke Sant Mauroren bizitzari buruzko eskuizkribuan: *Est pater in cella, cum nascitur ista novella* ('Aita bere gelan dago albiste edo berri hau sortzen denean'). Hortik ere frantsesek horrenbeste erabiltzen duten hitza, *nouvelles*. Antonio Augustinok azpimarratzen du enperadoreek ere hitz hori erabiltzen zutela bere agiri berrienak izendatzeko. Baina guk, argiago izatearren, *relationes* deitu ditugu.

- III. Baina, aurrera jarraitu baino lehenago, historia-formei buruz zer edo zer esan behar dugu. Forma horietako bat hari bat bezalako da, gertakizunen ordena bera gordetzen baitu, eta unibertsala, partikularra edo singularra deitzen dugu. Beste batek, ordea, gertakizunak eta hitzak hautatu, gertaera historikoen kontakizunetik atera eta ordenatu egiten ditu, edo gauzak aurkezten diren heinean kontatu egiten ditu. Badirudi horrelakoak zirela Aristoxenoren *τα εσποραδεν* edo *tartekatutako gauzak, noizean behinekoak*; berdin Pescennino Festoren ordenarik gabeko istorioak, Laktantziok bere *De Fals. Relig.* liburuaren I. liburuan, XXI. atalean gogoratzen dituenak. Ikus Voss, *De Art. Hist.*, VII. atala. Beste forma bat, azkenik, nahastua da. Greziarrek *symmicta* deitzen dute, *miscelanea*, edo forma anitzeko istorioa (*ποικιλην ραδενα παντοδαπην ιστορια*); eta baita, irizpiderik ez badago, nahaste-borrastea (*αταχτα*). Horrela idatzi zuen bere obra Aristotelesekin berak, Laerziok dioenez, V. liburuan, p.m. 317.
- IV. Azken forma honekin erlazionatzen ditugu gure *relationes novellas* (albisteak), orain dela gutxi han-hemenka gertatu diren denetariko gauzen berri ematen baitigitu. Hauek, zer esanik ez, elkarri loturik dauden gertakizunen ordena eta beren zioak kontuan hartzen dituzte gehiago, azalpen huts bat egiten dutelarik, edota gertakizun historiko aipagarrienak bakarrik kontatzen dituzte, edo gai diferentetako gauzak ere lotzen dituzte, eguneroko bizitzan gertatzen diren moduan, irakurleak, aniztasun hau dela eta, erakargarriak direlakoan bere arreta jar dezan.
- V. Orain komeni da polikiago beren jatorria eta beren osaketaren zioak aztertzea, beren egitura eta bizitza zibilean eta literarioan zertarako balio duten hobeki jakin dezagun.
- VI. Bere jatorriari dagokionez, ezin da zehaztu urte bat non albiste mota hauek horrela idazten hasi ziren. Greziarren artean, aintzinean, Troiako gudaldia aurretik, Siziliako Diodoro Sikulok dioskunez bere *Bibliotheca historica*ren hasieran, historia ez zen batere inportantea. Alderantziz, Olinpiar Jokuen aurrean, dena ezezaguna edo iluna da. Ikus Zensorino, *De Die Natali*, XXI. atala. Baita erromatarren artean ere, Hiriaren fundazioaren ondorengo lehen mendeetan, literatura eskasa izan zen. Han ere ez zegoen gertakizunen memoria idatz zezakeen pertsonarik. Salbuespena da pontifizeen iruzkinetan ezarrita geratzen zena, eta beste agiri pribatu eta publiko urrietan. Ikus Livio, VI. liburua. Antzinako jendearen negligentzia nolabait orekatzeko, gero idazle bikainak sortu ziren, greziarrak eta latindarrak, behin ezarrita benetako historiaren oinarria. Germanikoen artean, Karlomagnoaren denbora aurretik, ezin da esan historia lantzen zenik. Baina enperadoreak bere boterea

Alemania osoaren gainetik hedatu zuenean, historia irakasten hasi ziren, baita gainerako arteak ere, batez ere fraideak arduratu ziren horretaz, zeinek, garai latz haiei zegokienez, lehen aldiz egintza historikoen kontra bat kronika batean utzi zuten. Joan den mendean literatura berriro lantzen hasi zenean, jakintsuek historia jorratzeari ere gogor ekin zioten. Horrela, historia berriro berpiztu zen, eta asko eta asko historia idazten hasi ziren. Beste batzuk gero, hain landuak ez zirenak, hasi ziren han-hemenka gertatutako gauzei buruz idazten, arrapaladan egindako lantxo batzuk herri xumea irakurtzen eta gauza berriak ezagutzen zaletzeko.

- VII. Harrezkero, italiarrak eta frantziarrak, belgiarrak eta germaniarrak, orduan fortuna desberdinez garatzen ziren gerrak zirela eta, genero funtzional idatzi honetara zaletu ziren lehendabiziz. Lehenik eta behin korreo publikoak eta postak hasi zirelako, eta horrela urrun gertatzen diren gauzak ere jakin daitezke. Suetoniok dioenez, *Augustus*, 49. atalean, lehen aldiz posta horiek Erromako Inperioan eratu zituen Augustok. Hobeto antolatu zituen bere Inperioan Karlos V.ak. Frantzian Luis XI.ak postak antolatu zituen berehalaxe edozein probintzian gertatutakoaz jabetu ahal izateko. Ikus Limn., *Jur. Publ.*, II. liburua, IX. atala, n. 135. Azkenik, eta Gdansk-eko Gotard Arthusius-en bidez, 1609an *Merkurio* frantziar-belgiarrak agertu ziren, zeinek, nahiz eta benetako gauzekin batera asmakeriak ere ekarri, berritasunari esker askoren faborea lortu zuten. Zeren, Lukreziok bere IV. liburuan dioenez, «gizaseme guztiak zurrumurrak jasotzeko belarriak beti prest dituen jendetza da». Eta, Senekak *Natural Quaestiones*en bere VII. liburuan dioenez, «batzuk sinisberak dira, beste batzuk kuxkuxeroak. Batzuk gezurrak erraz engainatzen ditu. Batzuk ez dira gezurretik saihesten, beste batzuek gezurra bilatzen dute. Hauek guztiek uste dute bere obra ez dela onatua izango asmakeriez hornitzen ez badute».
- VIII. Gauzak horrela, gaur egun inprimatutako aldizkariak maiztasun handiz agertzen dira gizakien ikusmiragatik, alde batetik, eta egiten eta saltzen dituztenek dirua irabazi nahi dutelako, beste alde batetik. Hori erakutsi genezake adibide askorekin, baina aspergarria izan zitekeen, baita nekagarria ere beste batzuentzat.
- IX. Ordua da kontraerak zergatik osatzen diren aztertzeko; lehenik eta behin, egileak aztertuko ditugu (akademian kausa eraginkorra deitzen ditugunak). Horiek egiten dituztenei 'albiste' edo *novella* (berriz ere gogoratu behar dugu *novella* hitzaren esanahi arrunta kontsideratzen dugula) deitzeko, zenbait ezaugarri behar dira. Guk historialari onaren kalitateak deituko ditugu; alde batetik, argitasun edo adimenarekin erlazionatzeko, eta beste alde batetik, borondate edo nahiarekin.
- X. Adimenari dagokio kontraera publikoetan agertu behar diren gauzen ezagupena. Ezagupen hori lortzen da norberaren ekintzaz (*αυτοψία*), norbera gertakizunen ikusle edo lekuko izan denean (*αυτοπτεσ*); edota batzuek ikusi dituzten gertakizunak besteei kontatzen dizkietelako. Guztiok bat gatoz: sinesgarritasun handia du lekukoak (*αυτοπτεσ*), beste baten kontraeraren jasotzaileak baino. Epaietan ere gertakizuna ikusi duenari hobeto sinisten zaio gertakizun horretaz entzun duenari baino. Horregatik Verrio Flakok bere *De*

verborum significatione liburuan (Geliok aipatua, V. liburua, 18. atala) uste du historia dela norberak ikusi egin dituen gertakizunen kontaera (*αυτοπτεισ*). Baina Voss-ek, *De Art. Hist.*, 1. atala, uste du hori historiaren oso kontzeptu estuegia dela.

- XI. Kontaera mota honetan, judizioa edo sena behar da, adimenaren kualitaterik preziatuena, ondo bereizteko benetako gauzak eta zurrumurruak; susmoak eta eguneroko gauza eta ekintzak oso bereizita daude gauza publikoetatik eta kontatzea merezi duten gauzetatik. Judizio, sen edo zentzumen hau, idazle eta batez ere fraide askorengan, hau da, kronikagileengan falta izan da. Berriemaileengan ere falta da huskeriei buruz (*μυχρολογια*) eta tontakeriei buruz (*τα λεπτα*) hitz egiten dutenean, eta ez dituzte gauza interesgarri eta irakurgarriak aipatzen. Testuak besteei entzundakoaz betetzen dituzte, eta gauza ziurrik eta baieztaturik ez dutenean, historia eta egia bailiran susmoak eta asmakeriak jartzen dituzte. Atzerritik horrelako gauza askorik ez dator.
- XII. Akats hori, historialarien artean nahiko hedatua, aintzinean salatu zuen Luzianok bere *De Hist. Scrib.* liburuan: «Badaude asko alde batera uzten dituztenak gertakizun historiko handienak eta aipagarrienak, edo azaletik bakarrik aipatzen dituztenak; era berean, hezkuntza edo sen faltagatik, ez baitakite zer esan behar den eta zer ez, gauza ñimiñoenak ere aipatzen dituzte, luzez eta nekez kontatuz. Batek Olinpiako Jupiterren edertasuna ikusi eta sentituko ez balu bezala, eta ordea, zutoinaren zulentasuna eta oinetakoaren harmonia miretsiko balitu bezala (eta gauza horiek guztiak zehatz-mehatz azalduko balitu bezala)». Eta gero esandakoa parekotasun bikoitz batekin hornitzen du, bata lorategietatik eta bestea gonbiteetatik atereak. Oso xehea dela dio, baten batek arrosa alde batera utzi eta arantzak arakutzen baditu, edo afari handi batean arrain arrunt bat eta plater bat haragi elkartzen baditu, horrek baina ez luke inolaz ere gertatu behar.
- XIII. Berriemailearekin, albistariarekin, sinesgarritasuna eta egiarenganako maitasuna erlazionatzen ditut, behintzat asmo partidista batengatik beldur-gabekeriak ondo aztertuta ez dauden gauzez edota gauza faltsuez ez badu idazten. «Nork ez daki», dio Zizeronek, *De Oratore*, II. liburuan, «historiaren lehen legea gauza faltsurik ez esatea dela? Gero, ikusitako gauzak kontatzeko kemena ez zaio falta behar, partzialitate susmorik gabe. Hauek baitira edozein gizasemereren ganorak». Eta Estrabonek, bere *Geogr.* delakoaren XII. liburuan, amazonei buruz esaten dena asmakeria dela dio: «Historiak egia nahi du, zaharra edo berria delarik; eta ez du kontatzen bitxia dena, edo oso gutxitan kontatzen du». Horregatik Polibiok, antzinateko oso idazle on batek, Hispanian Eszipionek egindako balentriaz hitz egin behar duenean, lurralde urrun haietara doa, bere historian faltsukeriarik kontatu nahi ez duelako. Zizeronek faltan du hori, *De Legibus*, I. liburuan, Herodotorengan eta Teoponporengan. Eta Kintilianok, bere *De Institutione Oratoriaren* II. liburuko 11. atalean, dioenean greziarrek historian eta poetikan lizentzia berdinak erabiltzen dituztela, badirudi greziarrei ere sinesgarritasuna ukatzen diela.
- XIV. Egia da pentsatzen dela berri-biltzaileek historiagileek baino lizentzia gehiago erabil dezaketela, haiek egintzetan esku hartu ez dutenean eta lurralde urrunetako edo beren printzeen artxiboetako agiri fidagarririk lortzerik

ez dagoenean, eta gauza gehienak, asko eta asko ziurtatu gabeak, adiskideen gutunen bidez edo iritzi publikoaren bidez dakizkitez, eta bitartean zenbait istoriorekin asetu behar dute gizasemeen jakin-mina. Hala ere, ezin bada inoiz gezurrik edo faltsukeriarik esan, besteak engainatu ez daitezten edo iritzi okerrik har ez dezaten, orduan hobe da egilea gauza faltsurik ez esaten saiatzea, gauzak ziurrak ez direnean, Senekak bere *Naturale Quaestiones* IV. liburuan gomendatzen duen aholkua kontuan hartuz: «Autoreek diotenez...». Zeren iritzi ez ziurra hedatzea eta irakurlea engainatzea, gauzak nahiko garrantzitsuak ez direnean, arriskutsua baita oso. Zer espero daitezkeen zurrumurruetatik eta ospe publikotik uler daiteke Alexander Handiak bere gudariei botatako hitzetan, Kurtzioren IX. liburuan irakur daitezkeenak: «Ez da zuentzat gauza berririk plazetako exajerazioa. Ospeak ez du ezer garbi uzten. Famak ematen duena egia baino ilunagoa da. Gure aintza bera, sendoa bada ere, handiagoa da zurrumurruetan egintzetan baino». Horregatik ikusi behar da ea gertakizun hurbil bat leku ezberdinetan aditzera ematen denean, askoren testigantzak baieztatzen duen. Lekukoak bat ez datozenean, kontatutakoari ulergarritasun posible bat ematen diote, eta gerta dakioke baita serioenari ere noizean behin gauza faltsuak eta egiazkoak nahastea. Halaber, Flavio Vopiscok bere *Aurelianus*en aitortzen du berak ere Junio Tiberianori esan ziola historialari guztiek gezurren bat esan zutela; hamabost puntutan Livio, Salustiok, Kornelio Tazitok eta Ponpeio Trogok kontrakoa esan baitzuten.

- XV. Esanak esan, autoreak alde batera utzi eta aldizkarien edukiari buruz hitz egin behar dugu. Edukia (historiarena berarena bezalaxe), gauza singularrak dira, Jainkoak naturaren bidez, edo aingeruek, edo gizakiek eginak arlo zibilean edo Elizan. Baina, gauza horiek ia amaiezinak direnez, hautaketa bat egin behar da, *αξιωμαμενονενταει* lehentasuna emateko, hau da, gogoratuak eta ezagutuak izatea merezi dutenei. Horrelakoak dira, lehendabizi, prodigioak, mirariak, bitxikeriak eta munstrokeriak, naturaren edo artearen egintza edo emaitza miresgarriak, uholdeak eta ekaitz itzelak, lurrikarak, aurkikuntzak, gure mende honetan hain maiz gertatzen direnak. Baita inperioen era desberdinak, aldaketak, mugimenduak, gerra eta bakearen aferak, gerren zioak, planak, gatazkak, estrategiak, lege berriak, epaketak, kargu politikoak, dignitateak, printzeen jaiotzak eta heriotzak, erresuma bateko ondorengotzak, ospakizun publikoak, gizaseme ilustreen heriotza, pertsona inpioen bukaera, eta beste gauza batzuk. Azkenik, gai eklesiastiko eta literarioak: erlijioen jatorria, bere egileak, bere aurrerapenak, sekta berriak, prezepto doktrinalak, erritoak, bereizketa edo zismak, pertsekuzioa, sinodoak, dekretuak, doktoreen idazki azpimarragarrienak, eztabaida literarioak, adituen lan berriak, erakundeak, ezbeharrak, heriotzak eta beste ehundaka gauza, naturaren historiari buruzkoak, gizarteari buruzkoak, Elizari buruzkoak edo Literaturari buruzkoak; hori dena aurki daiteke errelazioetan, historia nahastua bailitzan, irakurleak aniztasun atseginarenean kolpea jasotzen baitu.
- XVI. Hala ere, gure errelazioen edukia hautatzerakoan, zuhurtasunak arreta bereziak gomendatzen dizkigu. Lehena zera da: ez dira kontuan hartzen pisu gutxiko gauzak edo gizakien eguneroko ekintzak; edo gizakien ezbeharrak,

eguneroko bizitzan maizegi gertatzen direnak. Adibidez, sasoi sasoi eta eguraldiaren arabera gertatzen diren ekaitz arruntak; printzeen etxeko ekintzak, hala nola ehizera joatea, janari bat antolatzea, komedia batera joatea, irtenaldi bat egitea, edo armadaren eskudroi batera errebista pasatzea. Berdin hiritarren arteko tratua; gaizkileen zigorra; oraindik ez dakizkigun afera publikoei buruzko burutazioak, eta beste gauza batzuk norberaren egunkariari dagozkionak. Gauza horien adibide asko aurki daitezke fraideen kroniketan. Bere garaian ere Kapitolinok azpimarratu zuen juizio-falta hori, bere *Macrini Vitan*, 1. atala, Junio Kordo historialariak nola zehazkizunik txikiak ere bilatzen zituen diotenean; Traianoz, Pioz, Markoz, zenbat aldiz irtetzen ziren, janaria aldatu edo zein arropa janzen zuten bakarrik jakin nahi bagenu ere. Idazle berberak, *Gordiani tres* liburuan, XXI. atalean, Junio Kordo historialaria gaitzesten du: «Hauek», dio, «Gordiano Gazteari buruz gogoratu behar ditugun gauzak dira. Guk, aldiz, Junio Kordok zentzuga-bekeria handiz etxeko bitxikeriei eta gauza baxuei buruz idazten duena ez dugu azaldu behar. Gauza horiek jakin nahi dituenak, jo beza Kordorengana, enperadore bakoitzak zenbat esklabu zituen ere baitio, zenbat lagun, zenbat kapa eta zenbat klamida». Den-dena jakiteak ez du ezertarako balio.

XVII. Gero, bigarren prekauzioa hauxe da: printzeek jakinarazi nahi ez dituzten gauzak ez aldarrikatzea. Arriskutsua baita gu zigor gaitzaketenei buruz idaztea. Pertsona zuhurrek gomendatzen dute haiek hil arte edo minik egin ezin izan arte itxoitea. Arrianok ere Alexanderren historian hala gomendatzen du, Ptolomeorengana eta Aristobulorengana oinarritua; eta berdin dio Kornelio Tazitok bere *Annalesen*, I, 1. Gainera, bizirik dauden printzeei buruz oso gutxitan esaten da gauza egiazkorik, idazleek koipea ematen baitiete, edo bestela gorrotatzen zaielako. Horrela, errudun edo errugabeak, inor ez egiaz arduratzen. Ikus bedi Tazito, *Historiae*, I. liburua, 1. atala. Horregatik, ondo antolatutako estatu batean, ezin zaio edonori utzi jendearen artean albisteak hedatzen. Ikus bedi Besoldus, *Thesaur. Pract.* 'neue Zeitungen' hitzean; eta Ahasver Fristch legegizon ospetsuaren *Discursum de Novellarum hodierno usu et abusu*, III. atala, Jenan 1676. urtean argitaratua.

XVIII. Hirugarren prekauzioa hauxe da: ohitura onen edo benetako erlijioaren aurkako gauzarik ez jartzea, hala nola gauza lizunak, krimen izugarriak, eta belarri pioek ezin jasan ditzaketen hitz inpioak. Gauza horiek guztiak adierazten direnean, Pliniok zioen bezala, badirudi irakasten direla. Horregatik, zenbait hiritan zuhurtasunaz erabaki dute ezin dela albisterik argitaratu zentsuratik pasatu arte. Diziiplina zuzenari esker, egia da, han-hemenka argitaraturiko orri lizunek espiritu inuxenteei minik ez egitea lortzen da, eta, bestalde, gaiztoak ez probokatzea.

XIX. Beste alde batetik, garrantzi gutxiko gauzak, aldizkari batzuetan parte handiena betetzen dutenak, egiten dituztenek historialariek baino aitzaki gehiago izan dezakete, haiek harrapaladan idazten dutelako, ez etorkizunerako baizik eta herriaren jakin-mina, berri nahia, asetzeko. Eta helburu hori betetzeko, pisuzko gauzarik ez dagoenean, gauza arinak eskaintzen dituzte. Horregatik, hemen nolabait gure mendearen ohiturak nolabait errespetatu behar ditugu. Julio Zesarrek, *De Bello Gallico*, IV. liburuan, 5. atalean,

galesen artean horrelako jakin-minaren berri ematen digu: «Galesek», dio, «bidaiariak geldiarazteko ohitura dute, eta galdetzen diete ea zer ikusi eta entzun duten, eta jendeak, herrietan, merkatariak inguratzen ditu, eta galdetzen die nondik datozen eta zertaz dakiten; eta, zurrumurruek bultzatuta, deliberrazio asko egiten dituzte gauza askori buruz, gizon guztiek diotenaz fidaturik, informatzaile gehienek faltsukeriak erantzuten baitizkiete». Horregatik, batzuek gauza arinak jakinarazten dituztenean, baliteke gaur egun ere herriaren gogo hartu duen gauza berriak ezagutzeko grina asetzea, Dioi Kasio imitatuz, zeinak, txikieria batzuk adierazi ondoren, barkamena eskatu zuen gaitasun falta ez zela esanez. Gizakiaren huskeria ezagutzen duen edonork badaki zein erraza den hizketan besteengandik edo zurrumurru batetik ezagutu ditugun gauza hauetan guztietan akats egitea. Egunero gertatzen diren gauzak, asko, sentimenduengatik edo negligentiagatik, adierazterakoan beste modu batez kontaktzen dira. Horregatik, egintza baten egia bilatzen badugu, erabil dezakegu Kurtziok aipatzen duen formula, IX. liburuan: «Sinesten ditudan gauzak azaltzen ditut bakarrik, zalantzan dudana ezin baitut esan, eta jaso dudana ezin baitut ezkutatu». Aldizkarien idazleak bere sinesgarritasuna zaindu behar du, horrela irakurleari bere iritzi propioa egiten uzten baitio. Horregatik, lehen goraiatu dugun Fritsch doktoreak, aipatu *Discursum*ean, IV. atalean, dio ez zaiela aldizkariei besterik gabe sinestu behar.

- XX. Horrelako kontakizunen forma, norbaitek galdetu nahi badu, anitza da. Baina, oro har, ekonomian (*οικονομία*) eta espresabidean (*λεξις*) oinarritzen da; zeren istorioaren ardatza beste leku batean zehazten baita (*το σωμα της ιστορίας*). Ekonomia egintza historikoaren azalpen-ordenuari dagokio; espresabideak egintzak esateko era eta estiloa esan nahi du. Segituan zer edo zer esango dugu parte hauei buruz.
- XXI. Ekonomiari eta disposizioari dagokienez, argi dago gaiaren araberakoa izan behar dutela. Gauza ezberdinak edo gauza xeheak adierazten direlako. Gauza ezberdinak azaltzen ditugunean, ordena arbitrarioa da, leku askotan, modu askotara eta garai askotan gertaturiko gauzek elkarrekiko loturarik ez dutelako. Horregatik aurkezten diren gauzen ordena mantendu ohi da. Aldiz, gauza xehe eta singular bat denean, gaiari dagokion ordena erabiltzen da. Adibidez, iazko Maguntziako setioa eta garaipenaren berri eman nahi badugu, lehenik egileei buruz hitz egingo dugu, gero zioari buruz, gero tresna eta lanabesei buruz, eta jarraian lekuari buruz eta aritzeko moduez, eta azkenik ekintzaz eta gertakizunei buruz, hiriaren setioan eta harreran disdiratu zuten heroei buruz. Eta Orangeko Gilen printzeak, gaur Britainia Handiko erregeak, burutu zuen Britainiarako espedizioaz hitz egin behar badugu, kontakizunaren egitura berdina izango da. Era berean, bestelako kontakizunetan ezagutzen ditugun zirkunstantziak aipatu beharko ditugu, hala nola pertsona, helburua, zioa, modua, lekua eta denbora. Ikus bedi Franz Patritius, *De Hist. Dialog.*, VII eta VIII. Bizitza zibilekoak ez diren beste gauza batzuetan, irizpidea nolabait desberdina da. Zirkunstantzia guztiak ezin direlako beti behar bezala sartu, zioaren konstantzia nahikoa ez dugunean, edo lekuaren, denboraren, edo analizatutako egintzaren modua zein izan den ziur ez dakigunean. Orduan nahikoa da egintzak aipatzea zurrumurruen

arabera, ordenarik ez dutenak. Ikus bedi Plinio, *Epist.*, IV. liburua, 11. gutuna.

- XXII. Albisteen espresabideek ($\lambda\epsilon\xi\iota\sigma$) edo esaerek, edo estiloek, ez dute ez poetikoa ez oratorioa izan behar. Oratorioa gauza berriak jakin nahi dituen irakurleari iluna iruditzen zaiolako; eta poetikoak gauzak behar bezalako argitasunaz adierazten ez dituelako. Aldiz, kontalariak, atsegina izan nahi badu, egintzari jarraitu behar dio erabat. Ikus bedi Zizeron, *De Oratore*ren II. liburua. Baina helburu hori lortzeko hizkera garbia alde batetik, argia beste alde batetik erabili behar da. Hori da Zizeronek bere *Brutus*en dioena: «Historian gauzarik atsegingarriena laburtasun garbia eta argia da». Horregatik hitz ilunak eta nahaskeria ekidin behar dira. Luzianok ere bere *De Scrib. Hist.* liburuan berdin esan du: «Idazlearen hitzak helburu bakar hau eduki behar du: egintzak argi eta garbi erakustea, ulertaraztea, hitz ilunik edo zaharrik gabe, merkatuko hitzik gabe, baizik eta gehienek ulertzeko moduko hitzekin». Ez dago hemen aldizkarietan ere egokia den historiaren estiloari buruz ezer gehiago esan beharrik. Ikus bedi Fabio Kintiliano, X. liburua, eta Voss doktorearen *De Art. Hist.* Nahiz eta antzinako kroniketan bezala estiloa latz samarra izan, kontakizunaren atsegina berdintsua da. Zeren Pliniok dioenez, *Epistulae*, V. liburua, 8. gutuna, «historiak dibertitzen du edozein delarik idatzita dagoen modua. Gizakiek naturaz jakin-mina dutelako, eta gauzen berri jakin nahi dute edozein modutan ere».
- XXIII. Historiaren helburua gertakizunen gogoeta gordetzea da. Historiari esker ez balitz, gure garaian gertaturikoa desagertu edo ezabatuko litzateke. Gauza singularrak hamaika direlako, eta historian edo analetan idatzita ez baleude, gizakien memoriaren huskeria edo akatsengatik isiltasunak lurperatuak izango lirateke, etorkizunean beren osotasunean ezin lirateke eza-gutu. Gure albisteei helburu berdina ezin zaiela eman, iger daiteke lehen esandakoarengatik. Lehen aipaturiko arrazoiengatik, esan bezala albistek ez dira etorkizunari begira idazten, baizik eta jakin-minari begira. Hala ere, nahiz eta kontaturiko gauza batzuk historiara ere pasatu, ez dira guztiak, gauza bakan batzuk baino, kontuz eta interes bereziaz eginak. Baina gehienek, zurrumuruak eta oso egiazkorak ez diren gutunak erabiliz idatziak direnez, urtebete baino gehiago ez dute irauten. Eta egia da ezin direla agiri fidagarritzat, etorkizuneko memoria gordetzeko modukotzat hartu.
- XXIV. Nik esango nuke gure errelazioen xedea gauzen ezagupena ematea dela, erabilgarritasunaz eta atsegingarritasunaz. Arrazoi horrengatik hasi ziren idazten eta hedatzen lehenengoak, hasieran beren jatorriaz hitz egitean esan dugun bezala. Hala da, zeren gauzak jakiteko grina hain handia den non hiritarrek elkarrekin bideetan topo egiten dutenean zera galdetzen baitiote elkarri: «Zer berri dago?». Gizakien jakin-min hori asetzeko hizkuntza desberdinetan gure kazetaritza-kontakizunak inprimatu dira. Eta irakurtzen dituenak ase dezake horrela bere solaskideen berri jakite hori.
- XXV. Helburu horrekin batera erabilgarritasuna eta atsegingarritasuna aipatu ditugu. Luzianok, *De Scrib. Hist.*, historiaren helburua erabilgarritasuna edo utilidadea ($\tau\omicron\ \chi\rho\eta\sigma\iota\mu\omicron\nu$) eta atsegingarritasuna edo amenitatea ($\tau\omicron\ \tau\epsilon\rho\omega\nu\omicron\nu$) direla dio, eta guk ere haiek azaldu behar ditugu aipaturiko

helburuaren ondorio eta emaitza baitira. Bai bata bai bestea irakurlearen gogoan agertzen direlako, berri baten errelazio bat hartzerakoan.

XXVI. Ez nuke esango aldizkariaren erabilgarritasuna historiarena bezain handia dela kontu handiz ibili gabe, zeren normalean horien egileek ez baitituzte historia ezartzeko behar diren egintzen ezagupena, gaitasuna, adimen gorena, susmagarriak ez diren artxiboetan lorturiko benetako agiriak eta, azkenik, historiarako egokia den lengoaia eta estiloa. Hala ere, ezin dut ukatu albisteetan gizasemeen bizitza publikoan zein pribatuan eragina duen zenbait erabilgarritasun badagoela. Horien berezitasunen adierazpena burutu zuen orain dela hamairu urte baino gehiago oso gizon argi batek, Christian Weise-k, bere *Schediasma Curiosum*ean, non, hain gizon ospetsuaren jakinduria ez ezik, aldizkariaren irakurleak autoreak aipatzen dituen aplikazioak ere arreta osoz ezagutu ditzakeen, batez ere geografiaren, genealogiaren, historiaren eta politikaren ezaguerari dagozkionak. Esan bezala, Weise-k azaldu du nola geografian aditua ez den pertsona, albisteak irakurtzeari esker, interesatua sentitzen den, edo, aditua bada, zaletuagoa; eta genealogiari dagokionez, berdin. Gure garaiko historiari dagokionez, ez dago demostratu beharrik errelazioen irakurketak arinagoa egiten duela, bere helburua kontuan hartuz gero. Azkenik, erabilgarritasun politikoari dagokionez, Weise handiak dio agian hau dela albisteetan garrantzitsuena, zeren haien bitartez ezagutu baitaitezke printzeen arteko eskubideak, bi aldeetan eztabaidatuak, korteetan ohikoak diren deliberazio, artifizio eta ohiturekin batera; era berean, irakurle adituak jakingo du zentzugabekeriak eta benetako gauza funtsezkoak bereizten. Zeren afera zibileei buruzko ezagupena handitu dezaketela uste dutenak oker baitaude. Azkenik letratu eta iletratuentzako, eta batez ere merkatarientzako beste erabilera batzuk ere ikus daitezke. Hauek ulertu ahal izateko, geografiaz, afera zibikoez eta batez ere jauregiko gauzez zerbait jakin behar da. Eta gauza hauei buruz gutxiak dakitenez, zoritxarrez, argi dago erabilera hauek ezin dituela edonork adierazi.

XXVII. Albisteen atsegingarritasuna, historia osoarena bezala, ezin uka daiteke. Zizeronen hitzen arabera, V. Liburua *Ep. 12 ad famil.*, «plazerrako ez dago gauza egokiagorik denboraren eta fortunaren mudapena baino, zeren, ezin dezakegunez horiek bizitzeko unea aukeratu, irakurtzeko atseginak baitira. Tristurarik gabeko iraganeko minaren gogoeta atsegingarria da; eta besteentzat, eragozpenik sufritu ez dutenentzat, besteen esperientzia minez sortua gupidagarria da. Hala da, analen ordenuak ez du gehiegi erakartzen, zerrenda kronologiko hutsa delako. Aldiz, askotan azpimarraturiko pertsonaia baten ibilaldi bariatuek, mirespena, jakin-mina, poza, eragozpena, esperantza, bildurra dakartzate; eta arrakastan bukatuz gero, espiritua oso irakurketa atseginaren plazerraz asetua geratzen da». Horrela egiten du batez ere historia hurbilak, irakurle kuriosoaren gogoia ukitu eta dibertitzen duelako. Zeren, Pliniok dioenez, «gizakiek naturaz ikusmira dute eta gauzen edozein ezagupena bilatzen dute». Antonio Palormitak dio, bere balentriei buruzko liburu batean, Aragoiko Alfontso erregeak Kurtzioren historia irakutzean hainbeste plazerra sentitzen zuela, non bere gaisotasuna sendatu egin zitzaiola. Kontatzen da behin sendatuta zera esan zuela:

«Avicena, Hipocrates eta beste sendagileak ikustera joan zaitezte; gora Kurtzio, nire salbatzailea».

- XXVIII. Plazer handiagoa lortzen dute, aldiz, jakitunek berriak irakurriz. Hauek gustu handiz geografiari buruzko, genealogiari buruzko eta politikari buruzko ezagupenak jasotzen dituzte. Zeren kontakizun oro atseginagoa baita, baldin eta lekua, gertakizuna eragin duten pertsonaia ospetsuak, edo horri buruzko zioak ezagutzen badira. Baina nork ez daki eginkizunen zirkunstantzia horiei buruzko ezaguera aipatutako zientzia partikularretatik datozela? Beraietan ezjakitun direnek, zeren haiei ez baitzaizkie ezberdin iruditzen koadro batean gizasemeen aurpegia, gorputzaren keinuak eta soina ezabatu edo ezkutuak bailiran, baino ez dutelako ikusten.
- XXIX. Eta, albiste eta kazetei buruzko zenbait ideia ikusirik, haien genero ezberdinei buruz hitz egin behar da. Haietako batzuek literatur gauzak baino ez dakartzate: beren izaera, beren gaiak, benetan bariatuak, eta beren argitalpena Frantzia, Ingalaterran, Belgikan, Alemanian eta Italian oso ezagunak dira eta ez ditugu hemen aipatu behar. Batzuek irakurleari gauza berezi eta dotoreak agintzen dizkiote, eta izenburu bitxia dute, hala nola Parisen eta Amsterdamen idazten direnak, *Le Nouveau mercure galant, contenant tout ce qui s'est passé de curieux etc.* Beste batzuk egintza zibikoez aritzen dira, hala nola *Histoire Abbregée de l'Europe, ou Relation exacte de ce qui se passe de considerable dans les Etats, dans les Armées, etc.*, eta Klaudio Jordanek Amsterdamen argitaratzen dituenak. Beste batzuk, aldiz, mota askotako gauzez aritzen dira, egunero gertatzen direnen arabera. Hauek, leku askotan inprimituak, astero, hilero edo sei hilabetetan behin argitaratzen dira hizkuntza batzuetan. Kazeta hauen artean merezi du alemanez Leipzig-en argitaratzen direnak, ondo taxutuak, eta latinez Frankfurt-en agertzen direnak, Latomoren ondorengoan dirulaguntzaz inprimituak, aipatzea, adierazten diren gauzen hautaketa bat dagoelako, kontuan hartu gabe huskeriak eta han-hemenka hedatzen diren zurrumurruak. Baina haiei guztiei buruz hitz egitea edo iritzi bat isurtzea luzea izango litzateke, eta gure ikerketaren irizpideak ez du hemen batere aipatzen uzten inori zentsura ez egokiz traba ez egitearren. Alderantziz, beren irakurle prestuen eskuetan iritzia utziz, eska diezaiozun Jainkoari hemendik aurrera, aldizkariak idatzi ahal izateko, izan ditzagula Alemaniaren eta gure sorterriaren pozarako diren gaiak.

Jaungoikoa bakarrik bedeinkatua izan dadila!

Christian Funccius jaun txit gorenari:

Funccius, zuzi argitsua agure beneragarrien artean,
Görlitzeko Ikastetxeko ere zuzi argitsua,
Aspaldiko zuzi argitsua, finean, gure haurtzaroan!
Peucer-i eman ninduzukion laudorioz betea,
Gazte ikasia zein ohitura onekoa,
Leipzigeko Atenas honetan erakuts bezαιο
Nondik nora jo bere bidea jarraitzearren,
Funccius-en jarraitzaile duina izan nahi izanez gero.
Gustura ere egin nuen, ahal izan nuen neurrian,
Makaoien artea buru belarri sartua
Egunen batean erien salbaziorako
itxaropen benturosoa izatearren,
are gehiago, Makaoi berria sorterrian.
Lanbidea duen bere artearen berri eman aurretik, baina,
Albisteak adierazi nahi izan ditu.
Zuk, gizon ondratua eta estimatua, gazte gartsu honen
Lanarekiko grina lagunduko duzu,
Buru argi urdindua,
Zure ikasleen artean kunplitu egin bedi.

Bertso hauek bota zituen
tesi honen presidentek

Zu, Peucer, orain ezin zaitugu ikusi filosofi katedran *cum laude*
Medikuntzan aldiz laister ikusi zaitugulakoan, hau da nire erregua.

Horrela nahi luke bihotz-bihotzez
Medikuntza Fakultateko katedradun eta dekanoa den
Martin Friedrich Friesek

Orain, beheko katedrara iritsia, Graziak eta Musek
Zuretzako, Peucer, altuena erreserbatzen dizute.

Augurio onak desiratuz idatzi dut,
Leipzigeko Kirurgia eta Anatomia katedradun eta sendagile ofiziala naizen
Andreas Petermannek

Orain, albisteen zioak eta jatorria azaltzen ausartu zarenean,
Jende landua nirekin batera pozik dago;
Febo ere pozik, pozik ere adiskideak:
Zergatik ez dizkizut nik ere azaldu behar nire desio eta erreguak?

Bertso hauek asmatu zituen
Adam Hofsteter doktoreak

Lan ederra eta laudorioz merezi duenari, Peucer landua,
Hasiera eman diozu, eta kezka antzuak ez dituzu oztopo izan,
Zeregin altuagoei ekin diezu ordea, papera medio
Famak aldarrikatzen dituen gertakizun eta patu ospetsuak,
Eta ahalegin ederraz jakinarazten duzu gero
Zure argitasunaren sentipen gorenaren arabera.
Horregatik Famak berak, zure ausardiaren leun-leun men eginda,
Izar altuetaraino eramango du zure izena.

Pozaren pozez, bertso hauek gehitu zituen
Joh. Caspar Grimm Medikuntzan doktoreak

Peucer, Peucer berria izan nahi zenukeena izan,
Beste Celsus bat Widukin hirian izan zinena.
Ondo da! Baina gogoan izan Prusiako Funccius hura
Alde egin ezazu handikerietatik,
Kaltegarri izan dira-eta, beti izan eta izango ere,
Behin baino gehiagotan heriotza eta zigor latza ekarri baitzuten.
Funccius-en aholkuak —sorterriko Apolo dugu—
Ederki hartu dituzu kontuan, eta gauza berri anitz irakurri,
Eta orain ikertzen dituzu, Pindoko Titan-en azpian,
Historia albisteetan, distira egiten du zeure argitasunak.
Ederki! Historiaren museekin lotu medikuntzarenak,
Peucer berria izango zara, akatsik gabea.

Bertso hauek bota zituen
Unibertsitateko katedradun eta liburuzaina den L. Joachim Feller-ek

Nork bere ikasketei zientzia bat gehitzea miresgarri da
Munduko gobernu eta egoeran agerian uzten baitu,
Gazteetan bitxia den ikasketa, guztien eskura ez dagoena,
Ene aburuz, baina, beste edozein bezain ospetsu.
Horretan datza, zure ondoan dago orbe osoa
Lurrean edonon gertatzen denari so.
Asmo guztiak, hurrengoak ere bai, estatuko sekretuak
Bertan ezagutuko dituzu.
Ikerketa honek orduan buru belarri ekiten dioenari
Gauza pozgarri eta bizitzarako erabilgarri askoak emango dizkio.
Ez al zenezaioke, Peucer, zure buruari berdina agindu
Ekinez eta eginez ikasgai hau landuz,
Tesi honek ageri duenez, bai eta beste izkribu batzuek ere?
Alderantziz, sendagileak ez du sufritu behar,
Bi gaiek ordea ospe eta ohorea emango dizute.

M. Gabriel Christoph Marquart,
Teologia Sakratuko ikasleak

Merkatuko plazaz plaza, zokoz zoko dabilen
Eta guztiei galdezka dioena, berririk al duzue?
Ez duzu hori gorai patzen, Peucer, baina albisteen erabilgarritasuna
Azaltzen duzu berriz, txit gorena denaren buruzagitzapean,
Eta jarraitzeko orduan, bai halaxe, haien jatorria adierazten
Koroa berriak zuretzat ehuntzen ditu Apolok.
Koroa berriengatik pozten naiz neu, desiratuz:
Fama berria betirako lagun diezazula!

C. D. Funccius
Filosofia eta Teologia Sakratuko ikaslea

Leipzigen bere zientzia langileak egindakoa
Hitz lauzko izkribu argitsu honetan ageri da.
Jarrai dezala bere bidea, Musek, gure ezkien alboan
Haren ametsak zainduz koroa ehuntzen baitiote.

Gottfried Behrnauer
Medikuntzako ikaslea